



Atxagaren hitzaldia

Azaroaren 5ean Bernardo Atxaga izan genuen Lasarteko berritzegunean Eskola Txikietako formazioaren saio berezi batean. Bertan, ipuinaz, irakurketaz eta idazketaz hitz egin zigun.

Idazle ofizioa jostunaren ofizioarekin konparatu zuen, jostunak prenda ezberdinak eginaz JOSI egiten duela, eta idazlearen kasuan ere, testu ezberdinak ekoiztuz IDATZI egiten duela, alegia.

Saio laburra baina trinkoa izan zen . Bere azalpenak oso lagungarriak gertatu zitzaizkigun irakasleoi , aholku ezin hobeak eman baitzizkigun gure ikasleei irakurketa-idazketa prozesuan aurrera egin dezaten lagundu ahal izateko.

Eskerrik asko, Atxaga jauna!!!

